

# B

BARREN

# Ikusi makusi...



# K.E.Y.

## hizkuntza akademia

Trenbide kalea, 19 behea

**ESPERO DUGU  
JAI ZORIONTSUAK  
PASAKO ZENITUZTELA!**

CAMBRIDGE  
Unibertsitateko  
Azterketetarako  
Batzordeko kidea ES438

## 2009-2010 ikasturtea

Ingeles, frantses eta aleman eskolak

- Maila guztiak
  - Haur eta gazteentzako taldeak
  - Talde homogeen eta mugatuak
  - Ikus-entzunezkoak
- Cambridge azterketen prestakuntza
    - YOUNG LEARNERS
    - KET
    - PET
    - FIRST CERTIFICATE

### Irailaren 15ean ikasturte hasiera

**MATRIKULA EPEA  
ZABALIK  
Informazioa:**

Telefonoz deituz:  
943 743 044 - 653 825 606  
edo

Akademian:  
**ARRATSALDEZ** (17:00 - 18:30)

# SLK

ensington  
Hizkuntza  
Zerbitzuak

CAMBRIDGEeko  
AZTERKETAK 2009

CAMBRIDGE YOUNG LEARNERS  
ENGLISH TESTS

**ZORIONAK!! ZORIONAK!! ZORIONAK!!**

**STARTERS, MOVERS, FLYERS, KET, PET eta FIRST-eko emaitzegtatik**

# ZORIONAK!

## MATRIKULA EPEA IREKITA!



Abel  
Irizar

Amaitu dira opor-  
rrak. Kito.  
Urte osoan  
egin ezin izan di-  
tugun gauzak  
egin ditugu, eta zo-  
riontsu izan gara hilabe-  
tez.



Alberto  
Agirreazaldegui



Bidaia zoragarriak egin ditugu. Hondartza exotikoetan har-  
tu dugu bainua. Kriariaren merkealdi-efektua aprobetxatu dugu *pa-  
kete turistiko*a hartu eta sei pisinako hotelean kolpe zoririk jo gabe  
egoteko. Kubata ederrak edan ditugu txiringitoetan. Eguzkipean aza-  
la majo belztu dugu, San Bartolome Egunean alkandora zuri elegan-  
tea jantzi ahal izateko. Pirinioetako eta Alpeetako mendirik tontorre-  
nara igo eta heroi sentitu gara momentu batez. Seme-alabak Eurodis-  
neyra eraman ditugu, eta egunean ordubete hartu dugu beraiekin jo-  
lasteko. Atxagaren azken obra edo Larsson-en trilogia-liburuak iraku-  
ri ditugu betaurreko beltzen atzetik. Herrietako jaietan ibili gara, eta  
gure herriko neska-mutilak baino hobeak diren kanpokoekin ligatu du-  
gu. Txiki Egunean lagun artean lizentzia osoz mozkortu gara denok,  
mozkorraldi kolektibo herrikoian. Baserritar egunean gure baserritarren  
produktuak kontsumitu ditugu, eta ordu txikietan kaletarrok dantza  
egin dugu txosna eta taberna ilunetan... Erlojurik gabe eta tentsiorik  
gabe, hilabetez, urte osorako arnasa hartu dugu.

## “Egunero xume baina zoriontsu bizi ala urtean hilabetez zoriontasun betean ibili?”

Ez dakit, hala ere, hori den zoriontasuna... Banantzen diren biko-  
terik gehienak oporraldian banantzen omen dira. Ez da sintoma one-  
gia.

Zer da hobe, Alberto, egunerokoan xume-xume baina zoriontsu  
bizitzea, ala urtean hilabetez zoriontasun betean ibiltzea?

Zoriontasuna hain erlatiboa da, Abel... Zuk  
dizozun bezala, bat zoriontsu izan daiteke kubata  
eder hori edaten, mendi tontorra egiten edo Lar-  
sson-en liburuak irakurtzen eta, bestea, hondartzan  
etzanda egoten edo Txiki Egunean mozkortuta salto eta alga-  
rak egiten. Baina zoriontasun hori iragankorra da, berehala agortzen  
da.

Ez dezagun nahastu zoriontasuna ondo pasatzearekin. Opo-  
rretan ondo pasatzen ahalegintzen gara gehienok. Ez dugu espe-  
ro zoriontsu izaterik. Hala ere, ondo pasatzeak ere baditu zailtasu-  
nak. Batzuek 3.000 kilometro egin behar dituzte ondo pasatzeko,  
eta beste batzuek etxe-inguruan ibilita ere pozik igarotzen dituzte  
oporrak. Beraz, zerikusi handia dauka bakoitzaren nahiak nolako-  
ak diren.

## “Ez dezagun nahastu zorionotasuna ondo pasatzearekin”

Zoriontasun betean ibiltzea ez da samurra, baina hilabetez horre-  
la ibiltzea posible da. Zailagoa da zoriontsu bizitzea, bizi luzea dela-  
ko eta belarrondoko ugari hartzen ditugulako bizitzan. Une gozoak  
eta mingotsak bizitzen jakinez errazago irauten da, eta zoriontsua-  
goa izan daiteke. Nolanahi ere, norbere izaeraren baitan dago dena.  
Batzuk botila erdi beteta ikusten dute beti, eta besteek erdi hutsik,  
nahiz eta botila inoiz ez egon erdiraino. Azkenean, betaurreko kon-  
tua da, baina alferrik joango zara optikara, han ez baitizute erakutsi-  
ko zoriontasunaren betaurrekorik. Bada Andu Lertxundiren liburu  
bat, izenburu hau duena: *Zorion perfektua*. Nahiz eta liburuak irakuri  
ez duzu lortuko inoiz, zorion perfekturik ez baitago inon.

SANBARTOLOMEETAKO ERRETRATUAK ETA BIDEOAK JARRI DITUGU

**MEDIATEKAN!**


Egin klik  
eta  
ikusiko duzu

[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)

ELGOIBARKO IZARBA  
KULTUR ELKARTEA

# 23

## Bezpera



Txupinazo tradizionala Giza Eskubideen parkean.

# Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
☎ 943 74 41 12  
Faxa: ☎ 943 74 37 04  
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com  
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04  
E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Asier Orbea, Oier Narbaiza PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILAK Oihana Tarragual, Ibai Portu, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Anjel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldegui, Sugar Etxaniz, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza. INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.750 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Pilar ikastetxeekoa botatu dute txupin ofiziala.




... eta kirol argazkien lehiaketetako sarituak.



Elgoibarko Udala



ELISKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO





# San Bartolome eguna



# 24



Sokadantzak 75 urte egin ditu aurten eta hainbat herritar omendu dituzte egindako lanagatik.

# 25

# Txiki eguna





# 25 Txiki







eguna





Elgoibarko Izarra elkarteko  
Haurrak eta Gazteak arloak  
kudeatzen duen ludotekarako  
**HEZITZAILEA** behar da.

**ESKATZEN DA:**

- ◀ Unibertsitateko diplomatura edo Lanbide Heziketako goi mailako ikasketak Heziketa Berezian..
- ◀ Ondorengo titulazioa izatea baloratuko da: Gizarte Hezkuntza, Pedagogia, Psikopedagogia.

- ◀ Horretaz gain, haurtzaroaren zein gazte-riaren alorretan prestakuntza espezifiko baloratuko da.
- ◀ Euskara Gaitasun Agiria (EGA).

Curriculum bidaltzeko epea: irailaren 14a baino lehen.  
E- posta: [aisia.zerbitzuak@elgoibarkoizarra.com](mailto:aisia.zerbitzuak@elgoibarkoizarra.com)  
Harremanetarako telefonoa: 943 741 626 (Edurne).



# 25

## Txiki eguna



ELGOIBAR - ARREITURRE  
MEKA GLHBI  
Aneigtoa, 2  
Tel.: 943 748 019  
Fax: 943 748 230  
E-posta: [bulegoa@elgoibarbi.net](mailto:bulegoa@elgoibarbi.net)  
20870 ELGOIBAR

**ELGOIBAR-ARREITURRE BHITIK**  
GOGORARAZI NAHI DIZUEGU  
DATORREN ASTEAN,  
IRAILAREN 8AN HASIKO DELA  
IKASTURTE BERRIA.

**EGUN HORRETAN KURTSOAREN**  
AURKEZPENA EGINGO DA  
ETA HAU IZANGO DA  
IKASLEEN ORDUTEGIA:

- DBH 1: goizeko 10:00etan
- DBH 2: goizeko 10:30etan
- DBH 3: goizeko 11:00etan
- DBH 4: goizeko 11:30etan
- ZIG Gela: goizeko 10:00etan
- BATXILERRA 1: 11:00etan Areto Nagusian
- BATXILERRA 2: 11:30ean dagokion gelan.

AUTOBUSAK ohiko geltokietatik goizeko 9:30ean.  
Itzulera eguerdiko 12:30ean.



# 26

Umeen eguna




# 27

## Jubilatuen eguna



# 28

## Gazteen eguna




ESKERTZA

### JOSE MARI SAN MARTIN MAGUREGUI

2009ko abuztuaren 18an hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





ESKERTZA

## ANTONIA GALLASTEGI OSORO

2009ko uztailaren 17an hil zen, 83 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





# 29

## Baserritarren eguna

Mausitxak bigarren saria eskuratu du gazta lehiaketan.



ESKERTZA

### ARANTXA ARRIETA IRIONDO

2009ko abuztuaren 21ean hil zen, 67 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.







ESKERTZA

## JOSE DOMINGO ARRILLAGA ARRILLAGA

2009ko uztailaren 29an hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



# SOKA muturra



ESKERTZA

## DIONISIO TXURRUKA OSORO

2009ko abuztuaren 27an hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





Arg.: Soarte

Arg.: Soarte



ESKERTZA

## JULIAN MUJIKA ITURZAETA

2009ko irailaren 2an hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



# MADALAKO GUNEA



ESKERTZA

## CARLOS EGAÑA IRUSTA

*Gure ondotik joan zara,  
baina betiko izango zaitugu  
gure bihotzetan.*

*2009ko abuztuaren 29an hil zen, 50urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*








ESKERTZA

## PASTORA ANSOLA ARZUAGA

2009ko abuztuaren 8an hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





ESKERTZA

## IGNACIO KORTABERRIA ANSOLA

2009ko abuztuaren 17an hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



# SAN ANTOLIN JAIAK 2009

## IRAILAK 4, BARIXAKUA

19:00 Txapel jaurtiketa lehiaketa eta Oliba jaurtiketa lehiaketa

20:00 Triki-bertso kalejira

Trikitilariak: ANSORREGI eta LARRAÑAGA

Bertsolariak: AMAIA AGIRRE, FREDI PAIA eta ARKAITZ ESTIBALLES

21:00 Bertso afaria (afarirako txartelak Usatorren salgai 25 eurotan)

Ondoren, erromeria: ANSORREGI eta LARRAÑAGA



## IRAILAK 5, ZAPATUA

17:30 San Antolin auzoko lasterketa herrikoia

18:30 Herri kirolak, harri jasotzen: GOIKOETXEA eta AIMAR IRIGOIEN

Iparraldeko jokoak: TUBI eta LAPAZARAN

21:00 Ardi gisatu dastaketa auzotarren kontura

Ondoren, erromeria goizaldera arte: LAJA eta MIKEL

01:00 auzoko errifaren zozketa



## IRAILAK 6, DOMEKA

11:30 Auzoan hildako guztien aldeko meza

Jaien bukaera



San Antolin jaiak 2008

ESKERTZA

## BEGOÑA ALZOLA ZUBIZURRE



*Ez egin negarrik,  
Jaunarengana noa  
eta zain naukazue zeruan.  
Ni hil naiz,  
baina nire maitasuna ez:  
lurrean maite izan zaituztedan beste  
maiteko zaituztet zerutik.*

2009ko abuztuaren 12an hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



# Aterpe

TABERNA  
**Eskerrik asko!**



## ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez** teoria ikasteko gela berria!



**ORDUTEGIA**

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

**LEKUALDAKETA**

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Kreditutzarekin ordaintzeko erraztasunak



Udalaren izenean, eskerrak elgoibartar guztioi, denon artean lortu baitugu San Bartolome jaia giro eta umore ezin hobean pasatzea.

